



**TEXTO REFUNDIDO DE LOS ESTATUTOS DE
MUBIL FUNDAZIOA2021**

“MUBIL FUNDAZIOA”REN ESTATUTUAK

ESTATUTOS DE LA FUNDACION “MUBIL FUNDAZIOA”

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izena.
2. artikulua. Araubide juridikoa, gaitasun eta nortasun juridikoa.
3. artikulua. Fundazioaren helburuak.
4. artikulua. Egoitza eta lurralde eremua.
5. artikulua. Onuradunak.
6. artikulua. Jarduera eta funtzionamendu printzipioak.

II. TITULUA. PATRONATUA

7. artikulua. Fundazioaren Patronatua.
8. artikulua. Patronatuaren osaketa.
9. artikulua. Patronatuko kideak izendatzea eta kentzea.
10. artikulua. Patronatuko kideen kargu-uztea ekar dezaketen arrazoiak.
11. artikulua. Patronatuko kideak ordeztzea.
12. artikulua. Patronatuaren iraupena.
13. artikulua. Patronatukide karguaren doakotasuna.
14. artikulua. Fundazioaren Lehendakaritza.
15. artikulua. Lehendakariordetza.
16. artikulua. Idazkaritza.
17. artikulua. Zuzendaritza Nagusia.
18. artikulua. Fundazioaren zerbitzurako langileria.
19. artikulua. Patronatuaren eginkizunak.
20. artikulua. Ordezkaritzak, batzorde delegatu edo exekutiboak, batzorde aholkulariak eta ahalordetzeak.
21. artikulua. Patronatuko kideen betebeharrak.
22. artikulua. Patronatua osatzen duten kideen autokuntratazioa.
23. artikulua. Patronatuko kideen erantzukizuna.
24. artikulua. Patronatuaren barruko funtzionamendua.
25. artikulua. Patronatua eratzea eta erabakiak hartzea.

TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

- Artículo 1. Denominación.
- Artículo 2. Régimen jurídico, capacidad y personalidad jurídica.
- Artículo 3. Fines fundacionales.
- Artículo 4. Domicilio y ámbito territorial.
- Artículo 5. Las personas beneficiarias.
- Artículo 6. Principios de actuación y funcionamiento.

TÍTULO II. EL PATRONATO

- Artículo 7. El Patronato de la Fundación.
- Artículo 8. Composición del Patronato.
- Artículo 9. Nombramiento y cese de los miembros del Patronato.
- Artículo 10. Causas de cese de las personas integrantes del Patronato.
- Artículo 11. Sustitución de las personas integrantes del Patronato.
- Artículo 12. Duración del Patronato.
- Artículo 13. Carácter gratuito del cargo de patrono o patrona.
- Artículo 14. Presidencia de la Fundación.
- Artículo 15. La Vicepresidencia.
- Artículo 16. La Secretaría.
- Artículo 17. La Dirección General.
- Artículo 18. Personal al servicio de la Fundación.
- Artículo 19. Funciones del Patronato.
- Artículo 20. Delegaciones, comisiones delegadas o ejecutivas, comités asesores y apoderamientos.
- Artículo 21. Obligaciones de los patronos o patronas.
- Artículo 22. Autocontratación de las personas integrantes del Patronato.
- Artículo 23. Responsabilidad de las personas que integran el Patronato.
- Artículo 24. Funcionamiento interno del Patronato.
- Artículo 25. Constitución y adopción de acuerdos.

III. TITULUA. ONDAREA, ERREGIMEN EKONOMIKOA ETA KONTRATAZIO ERREGIMENA

- 26. artikulua. Fundazioaren ondarea.
- 27. artikulua. Ondare zuzkidura.
- 28. artikulua. Fundazioaren ondarea zaintzea.
- 29. artikulua. Ekonomia eta kontabilitate betebeharrak.
- 30. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.
- 31. artikulua. Fundazioaren baliabideak aplikatzea.

- 32. artikulua. Jarduera ekonomikoak, enpresa arlokoak edo merkataritzakoak egitea.
- 33. artikulua. Xedatze egintzak edo kargak ezartzeko egintzak.
- 34. artikulua. Kontratazio araubidea.

IV. TITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA, BAT-EGITEA, BEREIZKETA, AZKENTZEA ETA ERALDATZEA

- 35. artikulua. Estatutuak aldatzea.
- 36. artikulua. Bat-egitea.
- 37. artikulua. Bereizketa.
- 38. artikulua. Azkentzea.
- 39. artikulua. Azkentzeko prozedura.
- 40. artikulua. Likidazioa eta soberako ondarearen xedea.
- 41. artikulua. Fundazioa eraldatu eta bestelako erakunde bihurtzea.

V. TITULUA. BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

- 42. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa .
- 43. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza..
- 44. artikulua. Zigor erregimena.

VI. TITULUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

- 45. artikulua. Laguntzaileak.
- 46. artikulua. Atxikimendua
- 47. artikulua. Ohorezko laguntzaileak.

TÍTULO III. PATRIMONIO, RÉGIMEN ECONÓMICO Y DE CONTRATACIÓN

- Artículo 26. El patrimonio de la Fundación.
- Artículo 27. Dotación patrimonial.
- Artículo 28. Custodia del patrimonio fundacional.
- Artículo 29. Obligaciones económico-contables.
- Artículo 30. Normativa aplicable.
- Artículo 31. Aplicación de los recursos de la Fundación.

- Artículo 32. Desarrollo de actividades económicas, empresariales o mercantiles.
- Artículo 33. Actos de disposición o gravamen.
- Artículo 34. Régimen de contratación.

TÍTULO IV. MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS, FUSIÓN, ESCISIÓN, EXTINCIÓN Y TRANSFORMACIÓN

- Artículo 35. Modificación de estatutos.
- Artículo 36. Fusión.
- Artículo 37. Escisión.
- Artículo 38. Extinción.
- Artículo 39. Procedimiento de extinción.
- Artículo 40. Liquidación y destino del patrimonio sobrante.
- Artículo 41. Transformación de la Fundación en otra entidad.

TÍTULO V. PROTECTORADO Y REGISTRO DE FUNDACIONES

- Artículo 42. Registro de Fundaciones del País Vasco.
- Artículo 43. El Protectorado de Fundaciones del País Vasco.
- Artículo 44. Régimen sancionador.

TÍTULO VI. RÉGIMEN JURÍDICO DE LAS PERSONAS COLABORADORAS DE LA FUNDACIÓN

- Artículo 45. Personas Colaboradoras.
- Artículo 46. Adhesión.
- Artículo 47. Colaboradoras honoríficas.

“MUBIL FUNDAZIOA”REN ESTATUTUAK

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Izena.

1. Estatutu hauen bidez arautuko da Gipuzkoako Foru Aldundiak eratu duen "MUBIL Fundazioa".

2. 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak, 129. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikiko zaio fundazioa.

3. Fundazioa, haren sortzaileen borondatearen, estatutu hauen eta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen arabera zuzenduko da, horiek guztiak garatzeko xedapen arautzaileak eta indarrean dagoen gainerako araudia ere kontuan hartuta.

4. Irabazi asmorik gabe sortutako erakundea da Fundazioa; eta, haren sortzaileen borondatez, interes orokorreko helburuak lortzera bideratuko du ondarea, modu iraunkorrean.

2. artikulua.- Araubide juridikoa, gaitasun eta nortasun juridikoa.

1. Fundazioak nortasun juridiko propioa eta independentea du eratzeko eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen une beretik; eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izango du. Izango dituen muga bakarrak honako hauek izango dira: erakundearen sortzaileek fundazioa eratzeko egintzan haien borondatea adierazteko zehazten dituztenak, estatutu hauetan ezarritakoak eta, betiere, fundazio honi aplikatu beharreko lege-xedapenetan finkatutakoak; bereziki, ekainaren 2ko 9/2016 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzkoan, ezarritakoak.

2. Horrela bada, eta Babesletzari egin beharreko komunikazioak baldintzatu gabe, bere helburuak lortze aldera jarduteko gaitasun osoa izango du Fundazioak, Kode Zibileko 38. artikuluan ezarritakoarekin bat. Fundazioak gaitasuna izango du:

ESTATUTOS DE LA FUNDACIÓN “MUBIL FUNDAZIOA”

TÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Denominación.

1. Mediante los presentes estatutos se regula la Fundación denominada “MUBIL Fundazioa” constituida por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. De conformidad con lo previsto en el artículo 129 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, la fundación se adscribe a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. La Fundación se rige por la voluntad de las personas fundadoras, por los presentes estatutos, y en todo caso por la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco, las disposiciones reglamentarias de desarrollo y demás normativa vigente.

4. La Fundación es una organización constituida sin fin de lucro que, por voluntad de las personas fundadoras, tiene afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de fines de interés general.

Artículo 2.- Régimen jurídico, capacidad y personalidad jurídica.

1. La Fundación tiene personalidad jurídica propia e independiente desde la inscripción de la escritura de constitución en el Registro de Fundaciones, y dispondrá de plena capacidad jurídica y de obrar, sin otras limitaciones que las establecidas en la manifestación de voluntad de las personas fundadoras en el acto fundacional, en los presentes estatutos y, en todo caso, en las disposiciones legales que le sean de aplicación, en particular la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

2. En consecuencia, y sin perjuicio de las pertinentes comunicaciones al Protectorado, la Fundación tendrá plena capacidad de obrar en el cumplimiento de sus fines, conforme a lo previsto en el artículo 38 del Código Civil. La Fundación podrá:

a) Era guztietako jarduera ekonomikoak egiteko, bere helburuak gauzatzeko edo xede horretarako baliabideak lortzeko.

b) Ondasunak eta eskubideak edozein tituluren bidez eskuratzeko eta besterentzeko, eta era guztietako egintzak, negozioak eta kontratuak egiteko.

c) Era guztietako egintzak gauzatzeko, haren estatutuen eta legeen arabera betiere.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak.

1. Fundazioaren helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoak elektromugikortasun arloan dituen gaitasunak sendotzea, mugikortasun elektrikoarekin zerikusia duen sektorea bultzatzea eta Gipuzkoako enpresek, nazioartean duten lehiakortasuna eta posizioa indartzea. Bereziki:

- a) Ezagutzaren sorrera bultzatzea elektromugikortasun arloan.
- b) Eragileak, enpresak eta industriak sensibilizatzea eta trebatzea.
- c) Azpiegitura teknologiko berezia ezagutaraztea eta enpresei baliabide horiek erabili ahal izateko bidea erraztea.
- d) Lurraldeko gaitasun zientifiko-teknologikoak eta industrialak lerrokatu eta balioestea, mugikortasun elektrikoaren eta energia biltegitzearen arloan jarduera ekonomiko berria sortzeko.
- e) Mugikortasun elektrikoaren eta energia biltegitzearen arloan negozio esparru berriak sortu eta ezagutza transferitzeko tresnak sortzea, dauden negozioak dibertsifikatzea, enpresa-sare berria eta enplegu berriak sortzea ahalbidetzen dutenak.
- f) Gipuzkoa mugikortasun elektrikoaren eta energia biltegitzearen living lab bihurtzea, Gipuzkoako Elektromugikortasunaren Estrategia hedatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta trebeziak dituzten hiritar konprometituak heziz.
- g) Eragile nagusiei lotutako jarduerak erakunde-lankidetzako sare batean integratzea, lurraldeko jarduerak modu ordenatuan eta adostuan garatuko direla bermatzeko.

2. Fundazioak, bere helburuak lortzeko, honako jarduera hauek egin ahal izango ditu:

a) Desarrollar actividades económicas, de todo tipo, para realizar sus fines o allegar recursos con ese objeto.

b) Adquirir y enajenar toda clase de bienes y derechos, por cualquier título, y celebrar todo tipo de actos, negocios y contratos.

c) Ejercitar toda clase de acciones, conforme a sus estatutos y a las leyes.

Artículo 3.- Fines fundacionales.

1. La Fundación tiene por objeto reforzar las capacidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de electromovilidad, impulsar el desarrollo del sector asociado a la movilidad eléctrica y reforzar la competitividad y posicionamiento internacional de las empresas de Gipuzkoa. Específicamente:

- a) Impulsar la generación de conocimiento en el ámbito de la electromovilidad.
- b) Sensibilizar y formar a los agentes, empresas e industrias.
- c) Difundir y hacer accesibles a las empresas equipamientos tecnológicos singulares.
- d) Alinear y poner en valor las capacidades científico-tecnológicas e industriales del territorio para la generación de nueva actividad económica en el ámbito de la movilidad eléctrica y el almacenamiento de energía.
- e) Impulsar mecanismos de transferencia de conocimiento y de generación de nuevos nichos de negocio en el ámbito de la movilidad eléctrica y el almacenamiento de energía que permitan la diversificación de negocios existentes, la creación de nuevo tejido empresarial y la generación de nuevos empleos.
- f) Convertir a Gipuzkoa en un living lab de movilidad eléctrica y almacenamiento de energía formando ciudadanas y ciudadanos comprometidos y con las habilidades y competencias necesarias para poder desplegar la Estrategia de Electromovilidad de Gipuzkoa.
- g) Integrar las actuaciones relacionadas de los principales agentes en una red de cooperación institucional que garantice un desarrollo ordenado y consensuado de las actuaciones en el Territorio.

2. Para la consecución de los fines fundacionales, la Fundación podrá llevar a cabo las siguientes actividades:

a) Soluzio berritzaileen garapena eta esperimentazioa sustatzea, start up-ak eta enpresa-proiektuak sortuko dituztenak, lehendik dagoen industria-ehunaren garapena eta eraldaketa bultzatuz.

b) Ezagutza guneak eta dagokien industria-ehunaren artean elkartzeko tresnak indartzea.

c) Lurraldean zehar energia kargatzeko azpiegiturak ezartzen administrazioari lagundu.

d) Pertsonen zuzendutako trebetasun eta gaitasun berriak lortzeko dinamikak indartzea, mugikortasun elektrikoarekin lotura duen hainbat lan-eremutan.

e) Mugikortasun elektriko jasagarriak dakartzkien abantailak eta aukerak buruz hiritarrak kontzientziatu.

f) Gaiarekin lotutako eragileen hausnarketarako espazio bat izatea aldeko esparru arauemaileak proposatzeko, erlazioetatutako politika nagusiekin lerrotatuta eta eremu horretan lurralde-koheretia sustatuko duena.

g) Elektromugikortasunaren eremuan atzerriko inbertsioa eta pertsona kualifikatuak erakartzea eta atxikitzea.

h) Elektromugikortasunerako Gune Industrialaren baitan sortuko diren azpiegitura eta zerbitzuen kudeaketa.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitarteko pertsonifikatu propioa da Fundazioa, eta hark mandatuak eman ahal izango dizkio –juridikoki kontratuak izango ez direnak– organo eskudunek kasu bakoitzerako zehaztutako baldintzetan, eta administrazio publikoari aplikatu behar zaion araubide juridiko eta administratiboarekin bat etorritik.

Fundazioak ez du parte hartzerik izango Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako lizitazio publikoetan; hala ere, lizitatzailerik bat bera ere aurkeztu ez denean, lizitazioa bultzatu duen zerbitzua emateko mandatua egin ahal izango zaio.

4. artikulua.- Egoitza eta lurralde eremua.

a) Potenciar el desarrollo y experimentación de soluciones innovadoras, que detonen la creación de start-ups y proyectos empresariales, así como apoyar el desarrollo y transformación del tejido industrial existente.

b) Fortalecer los mecanismos para la interconexión con los centros de conocimiento y el tejido empresarial relacionado.

c) Apoyar a la administración en la implantación de la infraestructura de recarga en el Territorio.

d) Fortalecer las dinámicas de adquisición de nuevas habilidades y competencias dirigidas a las personas en distintos ámbitos de trabajo relacionados con la movilidad eléctrica.

e) Concienciar a la ciudadanía sobre los beneficios y oportunidades de la movilidad eléctrica sostenible.

f) Actuar como espacio de reflexión de los agentes relacionados que sirva para la proposición de marcos normativos favorables, alineados con las políticas generales y que fomente la cohesión territorial en este ámbito.

g) Atraer y retener inversión extranjera y personas cualificadas en el ámbito de la electromovilidad.

h) Gestionar las infraestructuras y los servicios que se generen en relación al Polo Industrial para la electromovilidad.

3. La Fundación tiene la condición de medio propio personificado de la Diputación Foral de Gipuzkoa que podrá conferirle encargos, que no tendrán la consideración jurídica de contrato, en los términos y con las condiciones que se determinen por los órganos correspondientes para cada caso, y de acuerdo con el régimen jurídico y administrativo aplicable a las Administraciones Públicas.

La Fundación no podrá participar en licitaciones públicas convocadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa sin perjuicio de que, cuando no concurra ningún licitador, pueda encargársele la ejecución de la prestación objeto de las mismas.

Artículo 4.- Domicilio y ámbito territorial.

1. Fundazioak Donostian, Gipuzkoa plaza z/g, izango du bere egoitza (Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru jauregia).

2. Fundazioaren egoitza lekuz aldatzea erabaki ahal izango da, Patronatuak onartutako estatutu-aldaketaren bitartez. Horrelakoetan, aldaketa hori Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da. Era berean, Patronatuak ahalmena izango du Fundazioaren helburuak betetzeak sortzen dituen beharren arabera ezar daitezkeen establezimendu, ordezkartza edo bulegoen egoitzak zehazteko.

3. Fundazioak batez ere Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatuko ditu bere jarduerak, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetara zabaltzeko aukera ere landuko baditu ere. Gainera,

1. La Fundación tendrá su domicilio en Plaza de Gipuzkoa s/n (Palacio Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa), en San Sebastián.

2. Mediante acuerdo de modificación estatutaria adoptado por el Patronato de la Fundación, podrá determinarse el traslado de domicilio, lo cual deberá ser inscrito en el Registro de Fundaciones. Asimismo, se faculta al Patronato para la determinación de las sedes de los establecimientos, delegaciones u oficinas, que, según los casos, se fijen en función de las necesidades derivadas del cumplimiento de los fines fundacionales.

3. La Fundación desarrollará principalmente sus actividades en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, sin perjuicio de poder extenderlas al resto de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Además,

Fundazioaren helburuak betetzeko, harremanak ezarri eta mantendu ahal izango ditu estatuko eta nazioarteko komunikabideekin, baita egokiak diruditen bitartekoak erabili ere, dauden lekuan daudelarik ere.

5. artikulua.- Onuradunak.

1. Fundazioak, dituen interes orokorreko helburuen barruan, objektibotasunez eta inpartzialtasunez aukeratuko ditu onuradunak; hau da, egindako aukeraren ondorioz ezingo da inolako bereizkeriarik sortu.

2. Fundazioak bere prestazioak sekula ezin izango die eman fundazioaren sortzaileei, edo patronatukideei, edo horien guztien ezkontide edo maila bereko afektibotasunez lotutako pertsoneri, edo laugarren maila arteko senitartekoei, maila hori barne, edota interes orokorreko xedeak lortu nahi ez dituzten pertsona juridiko singularizatuei.

3. Fundazioak, emandako zerbitzuen trukean, onuradunei zenbatekoren bat ordaintzea eskatzen badie, zerbitzu horien balorazio objektiboari bakarrik begiratuko dio egin beharreko ordainketaren zenbatekoa zehazterakoan. Era berean, fundazioaren berezko izaerak hala aginduta onuradunen kopurua murriztu beharra gertatzen bada, Fundazioaren Patronatuak izaera lotesleaz aukeratu eta erabakiko ditu onuradunak. Hori horrela, izangaien merezimenduak, premiak, gaitasun ekonomikoa eta prestazioez baliatzeko duten aukera hartuko ditu aintzat, edo bestelako ezaugarri objektiboen arabera jardungo du. Nolanahi ere, inork ezingo du alegatu Fundazioaren edo haren organoen aurrean, ez banaka ez taldean, eskubideok eman aurretik haietaz gozatu duenik, ez eta eskubideok pertsona jakinei esleitzea inposatu ere.

4. Enpresa gipuzkoarrak izango dira Fundazioaren prestazio eta zerbitzuen lehentasunezko onuradunak, eta baita ere Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetan kokaturiko enpresak.

6. artikulua.- Jarduera eta funtzionamendu printzipioak.

1. Fundazioak printzipio hauek izango ditu gidari bere jardueran:

- a) Publikotasuna eta gardentasuna, Fundazioaren helburu eta jardueri buruzko informazio nahikoa emango du, herritarrek oro

para el desarrollo de sus fines fundacionales, podrá establecer y mantener relaciones con medios nacionales e internacionales y emplear los medios que parezcan adecuados, cualquiera que sea el lugar en que se localicen.

Artículo 5.- Las personas beneficiarias.

1. La Fundación, dentro de sus fines de interés general, habrá de actuar con criterios de objetividad y de imparcialidad en la selección de las personas beneficiarias sin que pueda producirse discriminación alguna.

2. En ningún caso podrá la Fundación destinar sus prestaciones a la persona o personas fundadoras o a los patronos o patronas, a sus cónyuges o personas ligadas con análoga relación de afectividad, o a sus parientes hasta el cuarto grado inclusive, así como a personas jurídicas singularizadas que no persigan fines de interés general.

3. Cuando la Fundación exija a las personas beneficiarias el abono de alguna cantidad por los servicios que preste, la determinación de ésta se deberá fijar exclusivamente mediante una valoración objetiva de dichos servicios. Asimismo cuando por la propia naturaleza de la Fundación, se derive la necesidad de limitar el número de personas beneficiarias, la selección o determinación de éstos se realizará con carácter vinculante por el Patronato de la Fundación, teniendo presentes los méritos, necesidades, capacidad económica y posibilidad de aprovechamiento por los distintos aspirantes o en base a otras características objetivas. En todo caso nadie podrá alegar, ni individual ni colectivamente, ante la Fundación o su Patronato derecho alguno al goce de dichos beneficios antes de que fuesen concedidos, ni imponer su atribución a personas determinadas.

4. Serán principalmente beneficiarias de las prestaciones y servicios de la Fundación las empresas guipuzcoanas y las empresas localizadas en los otros territorios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 6.- Principios de actuación y funcionamiento.

1. La Fundación se guiará en su actuación por los siguientes principios:

- a) Publicidad y transparencia, dando información suficiente de sus fines y actividades para que sean conocidos por la población en

har, eta balizko onuradunek haien berri izan dezaten.

b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak erabakitzerakoan ere.

c) Jarduteko jarraibideen sustapena, ereduzko kodeak eta funtzionamendurako jardunbide egokiak sortuz.

d) Patronatuko kideen zerbitzu espiritua sustatzea, eta Fundazioaren interesak lehenestea interes propio eta partikularren gainetik.

e) Lankidetzeta leiala eta etengabekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin.

f) Fundazioaren ondarea eta errentak benetan Fundazioaren helburuetarako erabil daitezela bultzatu eta babestea, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitakoarekin bat etorrira.

g) Genero berdintasuna eta euskararen babesa

2. Fundazioaren antolakuntza, funtzionamendua eta erabakiak hartzeko araubidea bat etorriko dira estatutu hauetan ezarritakoarekin eta, hala egokituz gero, Patronatuak onartutako barne erregimeneko arauekin.

II. TITULUA.- PATRONATUA

7. artikulua.- Fundazioaren Patronatua.

Patronatua da Fundazioa gobernatzeko eta ordezkatzeko organoa. Patronatuari dagokio Fundazioaren helburuak betetzea, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak arduraz administratzea, eta horien etekina eta erabilgarritasuna mantentzea.

8. artikulua.- Patronatuaren osaketa.

1. Patronatua kide anitzeko organoa izango da, gutxienez hiru (3) kidez osatua.

2. Patronatuak kide hauek izango ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundian proiektu estrategikoen arloan eskumena duen diputatua.
- Gipuzkoako Foru Aldundian araubide juridikoan eskumena duen zuzendari nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundian finantza eta

general y sus eventuales beneficiarias.

b) Imparcialidad y no discriminación en la determinación de las beneficiarias, así como de sus actividades y prestaciones.

c) Promoción de directrices de actuación, mediante la creación de códigos de conducta y buenas prácticas de funcionamiento.

d) Incentivación del espíritu de servicio de las personas que constituyen el Patronato, así como de la priorización de los intereses de la Fundación frente a los propios o particulares.

e) Colaboración leal y permanente con el Protectorado de Fundaciones del País Vasco.

f) Defensa y protección del efectivo cumplimiento de la obligación de destinar el patrimonio y rentas de la Fundación a los fines fundacionales, de acuerdo con lo previsto en estos estatutos y en la normativa en vigor.

g) Igualdad de género y defensa del euskera

2. La organización, funcionamiento y régimen de adopción de los acuerdos de la Fundación se ajustarán a lo establecido en estos estatutos y, en su caso, a las normas de régimen interno aprobadas por el Patronato.

TÍTULO II.- EL PATRONATO

Artículo 7.- El Patronato de la Fundación.

El Patronato es el órgano de gobierno y representación de la Fundación. Corresponde al mismo el cumplimiento de los fines fundacionales, la administración diligente de los bienes y derechos que integran el patrimonio de la Fundación, así como el mantenimiento del rendimiento y utilidad de los mismos.

Artículo 8.- Composición del Patronato.

1. El Patronato será un órgano colegiado compuesto por un mínimo de tres (3) miembros.

2. Serán miembros del Patronato:

- El diputado o diputada foral competente en materia de proyectos estratégicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- El director o directora general de régimen jurídico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- El director o directora general competente en

aurrekontuen gaien eskumena duen zuzendari nagusia.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako sei kide.

3. Patronatuak, gainera, Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa eta, betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkarien aldeko botoa izanez gero, pertsona fisiko eta juridikoak Patronatuko kide berri izendatzea erabaki dezake, sortzaile atxiki bezala edo bestela. Horrela bada, eraketa-eskriturak fundazio-gutunaren izaera izango du, eskritura hori eman eta gero beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek atxikitzeko aukera izan dezaten, kide sortzaileen kategoriarekin, baldin eta atxikimendu hori eskritura ematen denetik hasita bi urteko epean gertatzen bada.

Aipatutako epean pertsona eta entitate berrien sortzaile izaerako atxikipenak, notario aurreko eskrituran zertu beharko dira. Atxikipen horren baldintzak aldeaz aurretik Patronatuak onartuak izango dira eta honek ezarriko ditu, halaber, atxikitako sortzaile berriek kasuak kasu egin beharreko ekarpen ekonomikoak.

4. Patronatua osatuko duten pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izango dute, eta ez dira desgaituak egongo kargu publikoak betetzeko. Patronatuko kide diren pertsona juridikoek izendatu egin beharko dituzte organo horretan ordezkari izango dituzten pertsona fisikoak.

5. Gero atxikitzen diren kideek ere hasierako kideen eskubide eta betebeharrak izango dituzte Patronatuko kide diren bitartean.

6. Patronatuak honako kargu hauek izango ditu:

- Lehendakaria.
- Lehendakariordea.
- Idazkaria. Patronatuko kide ez den bat izan daiteke, baina horrela bada, irizpidea eman bai baina boto-eskubiderik ez du izango.

9. artikulua.- Patronatuko kideak izendatzea eta kentzea.

1. Lehen Patronatua sortzaileek izendatuko dute Fundazioa eratzekeo eskrituran.

materia de finanzas y presupuestos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

- Seis miembros nombrados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. El Patronato podrá acordar con el voto favorable de las dos terceras partes de los miembros del Patronato y en todo caso con el voto a favor de la representación de la Diputación Foral, la designación como nuevos Patronos de personas físicas o jurídicas como fundadoras adheridas o no. Por tanto la escritura de constitución, tendrá el carácter de carta fundacional, para que puedan adherirse con posterioridad a su otorgamiento y con la categoría de fundadoras otras personas físicas o jurídicas, siempre que tal adhesión se produzca en el plazo de dos años a contar desde su otorgamiento.

Las adhesiones de nuevas personas y entidades con el carácter de fundadoras, dentro del plazo prefijado, deberán ser otorgadas mediante escritura notarial. Previamente serán aprobadas las condiciones de su adhesión por el Patronato, quien fijará asimismo la contribución económica que las fundadoras adheridas hayan de satisfacer en su caso.

4. Las personas físicas que integren el Patronato deberán tener plena capacidad de obrar y no estar inhabilitadas para el ejercicio de cargos públicos. Las personas jurídicas miembros del Patronato deberán designar a la persona o personas físicas que les representen en dicho órgano.

5. Los miembros no natos, durante el tiempo que ostenten la condición de miembros del Patronato tendrán los mismos derechos y obligaciones que los miembros natos.

6. El Patronato estará compuesto por los siguientes cargos:

- El Presidente o Presidenta.
- El Vicepresidente o Vicepresidenta.
- El Secretario o Secretaria que podrá no ser miembro del Patronato, en cuyo caso tendrá voz pero no voto.

Artículo 9.- Nombramiento y cese de los miembros del Patronato.

1. El primer Patronato será nombrado por los fundadores en la escritura fundacional.

2. Patronatuan kide berriak izendatu behar direnean –dela Patronatua handitu egin behar delako, dela kideen ordezkioak izendatu behar direlako–, gobernu organo horrek berak izendatuko ditu, erakunde sortzaileen proposamena medio; horretarako gutxienez gehiengo absolutuak –kideen erdiak gehi bat– eman beharko du izendapenaren aldeko botoa eta, edozein kasutan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak diren hasierako kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa beharko da.

3. Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jakinarazi egin behar du kide berrien izendapena eta lehengo kargu-uztea, erabaki horiek hartu zirenetik edo karguari uko egin zaion egunetik hasi eta hiru hilabeteko epean.

4. Patronatuko kide izendatutako guztiek berariaz onartu beharko dute beren kargua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legearen 16. artikuluan aurreikusitako formularen bat erabiliz. Karguari uko egiteko, aipatutako artikulua 2. apartatuan aurreikusitako formularen bat erabiliko da.

5. Patronatuko kide batek bere kargua ez badu betetzen Legean aurreikusitako arduraz, eta ondorioz, bere aurkako erantzukizun egintza abiarazten bada, epaileak Patronatuko kide hori kargutik kentzea erabaki ahal izango du.

6. Gobernu organoko kideen izendapenak eta kargu-uzteak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

10. artikulua.- Patronatuko kideen kargu-uztea ekar dezaketan arrazoiak.

1. Honako kasu hauetan gertatuko da Fundazioaren Patronatua osatzen duten kideen kargu-uztea:

a) Hiltzen denean edo hil dela deklaritzen dutenean, eta pertsona juridikoa azkentzen denean.

b) Legeak ezarritakoaren arabera, desgaitasun, desgaitasun edo bateraezintasun egoeraren batean gertatzen denean.

c) Patronatuko kide izatera eraman zuen kargua betetzeari uzten dionean.

d) Kargua ordezkari leial batek berez behar duen arduraz betetzen ez duenean, baldin eta ebazpen judizialez adierazten bada ez duela hala bete.

2. El nombramiento de nuevos miembros en el seno del Patronato, bien sea por ampliación o por sustitución, se llevará a cabo por dicho órgano de gobierno, a propuesta de las entidades fundadoras, mediante el acuerdo adoptado por el voto favorable de la mayoría absoluta –la mitad más uno– de sus integrantes, como mínimo y en todo caso con el voto favorable de la mayoría absoluta de los patronos natos representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. El Patronato deberá comunicar al Registro de Fundaciones del País Vasco el nombramiento y cese de sus patronos o patronas en el plazo de tres meses contados desde la adopción de dichos acuerdos o desde la fecha de la renuncia.

4. Las personas nombradas deberán aceptar expresamente el cargo mediante alguna de las formas previstas en el artículo 16 de la Ley de Fundaciones del País Vasco. La renuncia deberá cumplimentarse mediante alguna de las formas previstas en el apartado 2 de dicho artículo.

5. La suspensión de las personas integrantes del Patronato podrá ser acordada por el órgano judicial competente, cuando se entable contra ellos la acción de responsabilidad por no desempeñar el cargo con la diligencia prevista en la Ley.

6. El nombramiento y cese de las personas integrantes del órgano de gobierno se inscribirán en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

Artículo 10.- Causas de cese de las personas integrantes del Patronato.

1. El cese de las personas integrantes del Patronato de la Fundación se producirá en los siguientes supuestos:

a) Por muerte o declaración de fallecimiento, así como por la extinción de la persona jurídica.

b) Por incapacidad, inhabilitación o incompatibilidad, de acuerdo con lo que establezca la ley.

c) Por cese en el cargo por razón del cual fueron nombradas.

d) Por no desempeñar el cargo con la diligencia de un o una representante leal, si así se declara en resolución judicial.

e) Erantzukizun-egintza jasotzen duen ebazpen judiziala ematean.

f) Agintaldia amaitzen zaionean, baldin eta aldi jakin baterako izendatu bazuten.

g) Karguari uko egiten dionean.

2. Legez ezarritako arazoiez gain, Patronatuko kide hautatuen kasuan, Patronatuak berak ildo horretan hartutako erabakiak kargua uztea ekarriko du, baldin eta erabaki horrek kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa badu eta, betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordekarari diren hasierako kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa badu.

11. artikulua.- Patronatuko kideak ordeztea.

1. Hasierako kideen kasuan izan ezik, Patronatuko kide batek bere kargua uzten badu, Patronatua berriarte geratzen denborarako izendatuko da hura ordezkatzeko duena. Ordezko kidea izendatzeko, kargu horretarako izendapena egiteko aurreikusia dagoen prozedurari jarraituko zaio.

2. Ordezkapena ezin bada egin arestian aipaturako bideari jarraituz, Fundazioen Legean aurreikusitako estatutu aldaketari ekingo zaio, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesleztak ahalmen osoa izango du Fundazioa gobernatu eta ordezkatzeko duen organoa behin-behinean osatuko duten kideak edo kidea izendatzeko, dagokion estatutuen moldaketa egin arte.

3. Uneren batean Patronatuko kideak hiru (3) baino gutxiago badira, patronatukide bakarraren kasuan izan ezik, geratzen direnek –edo sortzaileek, hala badagokio– legeak agintzen duen gutxieneko kopurura iristeko behar adina kide izendatu ahal izango dituzte, eta 30 eguneko epea izango dute izendapen horiek Babesleztari jakinarazteko.

4. Patronatuko kideen ordezkapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

12. artikulua.- Patronatuaren iraupena.

1. Patronatuko hasierako kidearen karguak iraupen mugagabea izango du. Hasierakoa ez den Patronatuko kidearen karguak gehienez ere 4

e) Por resolución judicial que acoja la acción de responsabilidad.

f) Por el transcurso del periodo de su mandato, si fueron nombradas por un determinado tiempo.

g) Por renuncia.

2. Además de las legalmente establecidas, en el caso de los miembros electivos del patronato, será causa de cese el acuerdo del propio Patronato adoptado con el voto favorable de la mayoría absoluta de los miembros del Patronato y en todo caso con el voto favorable de la mayoría absoluta de los patronos natos representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Artículo 11.- Sustitución de las personas integrantes del Patronato.

1. A excepción de los miembros natos, cuando se produzca el cese de un miembro del Patronato la persona que lo sustituya será designada por el período que resta hasta la renovación del Patronato. La designación de la persona sustituta se realizará por el mismo procedimiento previsto para su nombramiento.

2. Cuando la sustitución no pueda llevarse a cabo de la forma señalada, se procederá a la modificación de estatutos prevista en la Ley de Fundaciones, y el Protectorado de Fundaciones del País Vasco quedará facultado para la designación de la persona o personas que integren provisionalmente el órgano de gobierno y representación de la Fundación, hasta que se produzca dicha modificación estatutaria.

3. Si el número de patronos o patronas fuese en algún momento inferior a tres (3), salvo en el caso de patrono o patrona únicos, los demás miembros del Patronato con cargo en vigor, o las personas fundadoras en su caso, podrán designar a cuantos miembros sean necesarios para alcanzar el mínimo exigido por la ley, comunicando dichos nombramientos al Protectorado en el plazo de 30 días.

4. La sustitución de los patronos o patronas se inscribirá en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

Artículo 12.- Duración del Patronato.

1. El cargo de miembro nato del patronato tendrá una duración de carácter indefinida. El cargo de miembro no nato del patronato tendrá una duración

urteko iraupena izango du, eta pertsona bera mugagabe berraukeratu ahal izango da, epe berdinerako.

2. Heriotzak, ezintasunak, gaitasun gabetzeak, heriotza-deklarazioak, kanporatzeak, edo bateraezintasunak, agintaldia amaitu izanak, uko egiteak, kargutik kentzeak, edo gobernu organoko kide baten ordezkatzera edo kargu-uztea eragiten duten beste zirkunstantzia batzuek eragindako lanpostu hutsak, izendapena egiteko aurreikusia dagoen prozedura bera erabiliz beteko dira, eta lanpostu hutsaren egoera ezin izango da luzatu 6 hilabete baino gehiago.

13. artikulua.- Patronatukide karguaren doakotasuna.

1. Patronatuko kideek doan beteko dute beren kargua. Hala eta guztiz ere, dagokien zereginetan sortu zaizkien eta behar bezala justifikatzen dituzten gastuak berreskuratzeko aukera izango dute.

2. Fundazioaren sortzaileek kontraktorik zehaztu ez bazuten, Patronatuak erabaki dezake ordainsari bat ematea beren eginkizunei dagozkien zerbitzuez gain Fundazioan beste zerbitzu batzuk ematen dituzten kideei. Erabaki hori Babesletzak baimendu beharko du hiru hilabeteko epean.

14. artikulua.- Fundazioaren Lehendakaritza.

1. Patronatuak Lehendakari bat hautatuko du bere kideen artean, eta Patronatuko hasierako kideetako bat izango da kargu hori izango duena.

2. Lehendakariari dagokio Patronatuaren bileretarako deialdiak egitea, bere ekimenez edo kideen heren batek behintzat hala eskatuta; berari dagokio, halaber, eztabaidak zuzentzea eta hartutako erabakiak gauzatzea.

3. Patronatuko lehendakaria izango da gobernu organo horretako ordezkari gorena. Eta, gobernu organoko kide bezala dagozkion berariazko ahalmenak izateaz gain, Fundazioa berak ordezkaturiko du Patronatuak eta Fundazioaren beste organoek hartutako erabakietatik eratorritako egintza eta kontratu guztietan, hala nola sor litezkeen auzi eta espedienteetan, edota administrazioko, gobernuko, epaitegietako eta epaitegiez kanpoko arazoetan. Eta xede horrekin, prokuradoreei edo abokatuei auzietarako ahalmen orokorrak emateko gaitasuna izango du.

máxima de 4 años pudiendo ser reelegido, por periodos iguales, sin limitación alguna.

2. Las vacantes que se produzcan por muerte, incapacidad, inhabilitación, declaración de fallecimiento, exclusión o incompatibilidad, transcurso del periodo de su mandato, renuncia, remoción o cualquier otra circunstancia que provoque la sustitución o el cese de un miembro del órgano de gobierno, se cubrirán por acuerdo del Patronato, por el mismo procedimiento previsto para su nombramiento, no pudiendo prolongarse la situación de vacante por un periodo mayor de 6 meses.

Artículo 13.- Carácter gratuito del cargo de patrono o patrona.

1. Los patronos o patronas ejercerán su cargo gratuitamente. No obstante, podrán ser reembolsados de los gastos debidamente justificados que el desempeño de sus funciones les ocasione.

2. El Patronato podrá establecer una retribución para los patronos o patronas que presten en la Fundación servicios distintos de los correspondientes a sus funciones como tales, salvo prohibición expresa de las personas fundadoras. Dicho acuerdo deberá ser autorizado por el Protectorado en el plazo de tres meses.

Artículo 14.- Presidencia de la Fundación.

1. El Patronato elegirá entre sus miembros un Presidente o Presidenta, cargo que recaerá en uno de los miembros natos del Patronato.

2. Al Presidente o Presidenta le corresponderá convocar al Patronato por propia iniciativa o a petición de una tercera parte como mínimo de sus componentes, dirigir las deliberaciones y ejecutar sus acuerdos.

3. El Presidente o Presidenta del Patronato ostentará la máxima representación de dicho órgano de gobierno, correspondiéndole además de las facultades como integrante de dicho órgano, la de representar a la Fundación en todos sus actos y contratos que deriven de los acuerdos del Patronato y otros órganos de la Fundación, así como en cuantos litigios, expedientes, cuestiones administrativas, gubernativas, judiciales y extrajudiciales se presenten, estando facultado para otorgar poderes generales para pleitos a favor de Procuradores/as o Abogados/as al fin citado.

15. artikulua.- Lehendakariordetza.

1. Patronatuak Lehendakariorde bat izendatu ahal izango du bere kideen artetik, eta kideen gehiengoaren botoarekin hautatuko da.

2. Lehendakariordea lehendakariaren ordezkoa izango da hau kanpoan edo gaixo dagoenean; eta egoera hori egiaztatzeko nahikoa izango da haiek hala adieraztea. Lehendakaria eta lehendakariordea bertan ez direnean, kide zaharrenak ordezkatu du lehendakaria.

16. artikulua.- Idazkaritza.

1. Patronatuak kideetako bat izenda dezake idazkari, eta honek hitza eta botoa izango ditu. Patronatuaz kanpoko norbait ere izenda dezake zeregin horretarako, baina ez du botoa emateko eskubiderik izango. Idazkariak bilkuretako akta egingo du eta, behin onartu eta gero, Akten Liburuan jasoko ditu lehendakariaren oniritziarekin.

2. Idazkariaren kargua duen pertsona bertan ez denean, kide gazteenak ordezkatu du.

17. artikulua.- Zuzendaritza Nagusia.

1. Patronatuak zuzendari baten esku utz dezake Fundazioaren ohiko kudeaketa egiteko ardura, zuzendari horren izendapena eta kargu-uztea Babesletzari jakinarazita. Zuzendari horri ematen zaizkion ahalmenak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

2. Segidan aipatuko ditugun eta izaera betearazlea duten zereginak izango dira Zuzendaritzaren berriazko egitekoak, betiere kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legearen 18.1. artikuluan aipatutako ahalmenak ezin zaizkiola inolaz ere eskuordetu:

- Fundazioaren helburuak betetzen direla bermatzea.
- Lanpostuen egitura eta erantzukizunen banaketa prestatu eta Fundazioaren Patronatuari proposatzea, honek onar dezan, Fundazioaren helburuei jarraituz.
- Fundazioaren baliabideak, ondarea, sarrerak eta gastuak, jarduerak eta beste administratzea eta kudeatzea, Patronatuari berriaz dagozkion eskumenak baldintzatu

Artículo 15.- La Vicepresidencia.

1. El Patronato podrá designar de entre sus miembros un Vicepresidente o Vicepresidenta, que será elegido/a con el voto mayoritario de sus miembros.

2. El Vicepresidente o Vicepresidenta sustituirá a la persona que ostente la presidencia en caso de ausencia o enfermedad de ésta, bastando para acreditar estos extremos la mera manifestación de aquéllos. En caso de ausencia de la presidencia y vicepresidencia, le sustituirá el patrono o patrona de mayor edad.

Artículo 16.- La Secretaría.

1. El Patronato podrá designar un Secretario o Secretaria entre sus miembros con voz y voto, o externo al mismo en cuyo caso carecerá de voto, que levantará acta de las sesiones que se transcribirán al Libro de Actas una vez aprobadas y con el visto bueno de la persona que ostente la presidencia.

2. En caso de ausencia de la persona que ostente la secretaría, le sustituirá el patrono o patrona de menor edad.

Artículo 17.- La Dirección General.

1. El Patronato podrá encomendar el ejercicio de la gestión ordinaria de la Fundación a un Director o Directora, cuyo nombramiento y cese deberán ser comunicados al Protectorado. Los poderes que en su caso le sean otorgados serán objeto de inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

2. Serán funciones propias de la Dirección aquellas de naturaleza ejecutiva que a continuación se indican, sin que puedan comprender ni ser objeto de delegación en ella, las facultades mencionadas en el artículo 18.1 de la Ley de Fundaciones del País Vasco:

- Asegurar el cumplimiento de los objetivos de la Fundación.
- Elevar al Patronato de la Fundación una propuesta de estructura de puestos y distribución de responsabilidades para su aprobación de acuerdo a los fines fundacionales.
- La administración y gestión de los recursos, patrimonio, ingresos y gastos, actividades, etc. de la Fundación, sin perjuicio de las competencias propias del Patronato.

gabe.

- Fundazioaren ordezkari gisa jardutea, lehendakariak hala agintzen dion bakoitzean.
- Jarduketa planaren proposamena prestatzea eta Patronatuari aurkeztea, honek onar dezan.
- Patronatuak onartutako kontratuak formalizatzea.
- Aurrekontuen proiektuak prestatzea, urteko kontuak egitea eta, orokorrean, Patronatuak ezarritako periodikotasunean informazio ekonomikoa ematea, Fundazioaren ondarearen emaitza ekonomikoaren eboluzioa ezagutzeko balioko duena.
- Estatutu hauetan aurreikusi ez diren erabakiak Patronatuaren irizpenera jartzea, kudeatzaile on baten ikuspegiak hala agintzen duenean.
- Patronatuak berariaz esleitu dizkion gainerako zeregin eta ahalordeak.

18. artikulua.- Fundazioaren zerbitzurako langileria.

1. Fundazioak lantalde bat antolatuko du Patronatuaren ikuskaritza eta gidaritzapean. Fundazioaren helburuak modu eraginkorrean gauzatzeko behar hainbat kideko langileria izango da, bakoitzaren zereginen dagokien ordainsariak betiere.

2. Fundazioaren zerbitzura arituko diren langileak hautatzerakoan, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta deialdiaren publikitate printzipioak jarraituko dira.

3. Fundazioko langileak, zuzendari-izaera duena barne, lan-zuzenbidearen arabera arautuko dira, bai eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko fundazioa den aldetik aplikatuko zaizkion arauen arabera ere, horien artean, aurrekontu-araudia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren foru-arauek ezartzen dutena barne.

19. artikulua.- Patronatuaren eginkizunak.

Patronatuaren eginkizunen artean sartuko dira Fundazioaren gobernu eta administrazioarekin zerikusia duten egiteko guztiak; bereziki eta gutxienez:

- a) Fundazioaren nondik norakoak adieraztea, dituen helburuak hobeto betetzearen.

- Actuar en representación de la Fundación cuando así se lo indique el Presidente o Presidenta.
- Elaborar una propuesta de Plan de actuación y someterla a la aprobación del Patronato.
- Formalizar los contratos aprobados por el Patronato.
- Elaborar los proyectos de presupuestos, formular las cuentas anuales y en general, toda información de carácter económico, que con la periodicidad que establezca el Patronato, permita conocer la evolución de la situación económico-patrimonial de la Fundación.
- Someter al Patronato cuantas decisiones no previstas en los presentes Estatutos que el sentido del buen gestor así lo aconseje.
- Aquellas otras funciones o apoderamientos que expresamente le haya conferido el Patronato.

Artículo 18.- Personal al servicio de la Fundación.

1. La Fundación contará, bajo la supervisión y dirección del Patronato, con una plantilla cuyo número será adecuado para llevar a cabo de manera eficiente las actividades objeto de la misma, con la remuneración adecuada al ejercicio de sus funciones.

2. La selección del personal de la Fundación deberá regirse por los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad de la correspondiente convocatoria.

3. El personal de la fundación, incluido el que tenga condición de directivo, se regirá por el derecho laboral, así como por las normas que le sean de aplicación en su condición de fundación del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, incluyendo entre las mismas la normativa presupuestaria así como la que se establezca en las normas forales de presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 19.- Funciones del Patronato.

Las funciones del Patronato se extienden a todo lo que concierne al gobierno y administración de la Fundación y, en particular, como mínimo a los siguientes extremos:

- a) Señalar la orientación de la Fundación para el mejor cumplimiento de sus fines.

b) Baliabide ekonomiko eta finantzario guztiak administratzea, baliabide horien jatorria edozein dela ere.

c) Urteko kontuak onartzea.

d) Hurrengo ekitaldiko Jarduketa Plana onartzea, ekitaldi horretako azalpen memoria bezalaxe.

e) Patronatuaren beraren antolakuntza arauak eta barne erregimeneko arauak onartzea; baita estatutu hauetan aurreikusitako batzorde guztienak ere, estatutuetan arautu gabeko alderdi guztietan.

f) Batzorde Delegatuak edo exekutiboak sortzea, horietako kideak izendatu eta dagozkien ahalmenak zehaztea, eta ahalordetze orokorrak edo bereziak ematea.

g) Zuzendaritzako karguak, exekutiboak eta aholkulariak izendatzea, eta beharrezkoak diren teknikari, administrari, langile eta mendekoak kontratatzea.

h) Fundazioaren helburuak hobekien betetzeko beharrezkoak diren egintza eta kontratu guztiak onartzea, edozein motetakoak direlarik ere: zibilak, merkataritzakoak, lan arlokoak, administratiboak edo beste. Eta betiere bermatzea kontratazioak bat datozela lizitazioetan parte hartzeko askatasun, publizitate eta prozeduren gardentasun printzipioekin, hala nola izangaien arteko diskriminazio eza eta tratu berdintasunarekin.

i) Lerrun handiagoko erabakia eskatzen duten proposamenak bidezko erakunde eskudunen irizpenera jartzea.

j) Enpresek, erakundeek, organismo edo partikularrek elkarlan teknikoko programetan eta langileria aditua prestatzeko programetan parte dezaten sustatzea, funtsen ekarpenak eginez edo lankidetzaz hitzarmenak sinatuz.

k) Fundazioaren onurari begira, herentziak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo baztertzea, betiere Babesletzari jakinarazita.

l) Fundazioaren eratze-estatutuak aldatzea, baldin eta sortzaileen nahia hobeto betetzeko beharrezkoa bada.

b) La administración de la totalidad de los recursos económicos y financieros cualquiera que sea el origen de los mismos.

c) Aprobar las cuentas anuales

d) Aprobar el Plan de actuación del ejercicio siguiente así como su Memoria explicativa.

e) Aprobar las normas de organización y funcionamiento interno del propio Patronato, así como de aquellas comisiones previstas por estos Estatutos, en todo lo no regulado por los mismos.

f) La creación de comisiones delegadas o ejecutivas, nombramiento de sus miembros y determinación de sus facultades y otorgar apoderamientos generales o especiales.

g) Los nombramientos de los cargos directivos, ejecutivos y asesores, así como la contratación del resto del personal técnico, administrativo, laboral y subalterno necesario.

h) Aprobar toda clase de actos y contratos, sean de índole civil, mercantil, laboral, administrativo o de cualquier otra clase, que la mejor realización de los fines de la Fundación requiera, garantizando que las contrataciones se ajustan a los principios de libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos y no discriminación e igualdad de trato entre las personas candidatas.

i) Elevar las propuestas que procedan a los organismos competentes para las cuestiones en que deba recaer acuerdo superior.

j) Promover la participación de empresas, entidades, organismos, o particulares en programas de cooperación técnica y de formación de personal cualificado, mediante la aportación de fondos y convenios de colaboración.

k) Aceptar o repudiar herencias, legados o donaciones siempre que lo consideren conveniente para la Fundación, poniéndolo en conocimiento del Protectorado.

l) Modificar los estatutos fundacionales, si fuese necesario para el mejor cumplimiento de la voluntad de las personas fundadoras.

20. artikulua.- Ordezkaritzak, batzorde delegatu edo exekutiboak, batzorde aholkulariak eta ahalordetzeak.

1. Patronatuak bere kide baten edo gehiagoren esku utzi ahal izango ditu dagozkion ahalmenak. Ezin izango dira eskuordetu, inolaz ere, honako gai hauei buruzko erabakiak:

- a) Urteko kontuen onespena.
- b) Jarduketa planaren onespena.
- c) Estatutuen aldaketa.
- d) Fundazioaren bat-egitea, bereizketa, eraldaketa, azkentzea eta likidazioa.
- e) Beste pertsona juridiko bat eratzeko egintzak, baldin eta helburuei zuzenean lotuak ez badaude behintzat.
- f) Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiago bada.
- g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen duten ondasun edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.
- h) Zuzkidura handitzea edo gutxitzea.
- i) Aktibo eta pasibo guztien edo batzuen bat-egitea, bereizketa edo lagapen orokorra.
- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzukazkentzeko egintzak.
- k) Patronatuko kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketa hori errepikatua bada eta Babesletzak aurretik baimendu badu kasu beretarako.
- l) Erantzukizuneko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

2. Patronatuak, aurreko pasartean adierazitako mugak errespetatuz, batzorde exekutibo baten esku edo batzorde delegatu baten edo gehiagoren esku, utzi ahal izango ditu, guztiz edo neurri batean, bere ahalmen eta eginkizunak. Legez eskualdatu ezin diren ahalmen eta eginkizunak ez dira inolaz ere eskuordetuko.

3. Patronatuak batzorde edo kontseilu aholkulariak sortzea erabaki dezake, Fundazioaren helburuak hobeto betetzearren.

Artículo 20.- Delegaciones, comisiones delegadas o ejecutivas, comités asesores y apoderamientos.

1. El Patronato podrá delegar sus facultades en una o varias de las personas que lo integran. No podrán delegarse, en ningún caso, la adopción de los acuerdos relativos a:

- a) La aprobación de las cuentas anuales.
- b) La aprobación del plan de actuación.
- c) La modificación de los estatutos.
- d) La fusión, escisión, transformación, extinción y liquidación de la Fundación.
- e) Los actos de constitución de otra persona jurídica, salvo que dichos actos estén directamente vinculados a los fines.
- f) Los actos de participación o venta de participaciones en otras personas jurídicas si su importe es superior al 20% del activo de la Fundación.
- g) Cualquier acto de disposición sobre bienes o derechos que superen el 20% del activo de la Fundación.
- h) El aumento o la disminución de la dotación.
- i) La fusión, escisión o cesión global de todos o parte de los activos y pasivos.
- j) Los actos de extinción de sociedades u otras personas jurídicas.
- k) La autocontratación de las personas que integran el Patronato, salvo que dicha actuación sea recurrente y se haya autorizado por el protectorado anteriormente para supuestos idénticos.
- l) La adopción y formalización de las declaraciones responsables.

2. Con las limitaciones expresadas en el párrafo anterior el Patronato podrá delegar total o parcialmente sus facultades y atribuciones en una comisión ejecutiva, y/o en una o varias comisiones delegadas. En ningún caso podrán ser objeto de delegación las facultades y atribuciones que por ley sean indelegables.

3. El Patronato podrá acordar la creación de Comités o Consejos Asesores que contribuyan al mejor cumplimiento de los fines de la Fundación

Batzorde horiek Patronatuak izendatutako kideek osatuko dituzte, patronatukideak izan ala ez, eta haren iritziz bidezkoak diren ahalmen eta zereginak izango dituzte.

4. Patronatuak, halaber, botere orokorrak eta bereziak emateko eta kentzeko ahalmena izango du.

21. artikulua.- Patronatuko kideen betebeharrak.

Fundazioaren Patronatuko kideek honako betebeharrak hauek dituzte:

a) Fundazioaren helburuak zorrotz bete eta betearaztea, Legean eta Fundazioaren estatutuetan xedatutakoari jarraituz.

b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea, eta horiek eraginkortasun osoz mantentzea, kudeatzaile on batek izan behar dituen irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera.

c) Kargua ordezkari leial bati dagokion arduraz betetzea.

22. artikulua.- Patronatua osatzen duten kideen autokontratazioa.

1. Patronatuko kideek edo haien ordezkariak Fundazioarekin ezin izango dute kontraturik egin, ez beren izenean ez hirugarren baten izenean, baldin eta Babesletzak horretarako baimena ematen ez badu behintzat, ezarritako prozedurari jarraituz.

2. Fundazioaren helburuak ahalik eta hobekien lortzeko egingo dira kontratu horiek, interes gatazkarik sortu gabe eta merkatuko baldintzetan, Fundazioan kontratazioaren ardura duen pertsonak edo organoak aldeztatik erabaki arrazoitua emanda, betiere.

23. artikulua.- Patronatuko kideen erantzukizuna.

1. Patronatuko kideek Fundazioaren aurrean solidarioki erantzungo dute legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz, edo kargua behar bezalako arduraz ez betetzeagatik, eragiten dituzten kalte eta galerengatik.

integrados por las personas que juzgue por conveniente, sean patronos o no, con las facultades y funciones que considere oportuno.

4. Así mismo, el Patronato podrá otorgar o revocar poderes generales y especiales.

Artículo 21.- Obligaciones de los patronos o patronas.

Las personas que integran el Patronato de la Fundación están obligadas a:

a) Cumplir y hacer cumplir estrictamente los fines fundacionales, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley y los Estatutos de la Fundación.

b) Administrar los bienes y derechos que integran el patrimonio de la Fundación y mantener plenamente la productividad de los mismos, según los criterios económico-financieros de una buena gestión.

c) Servir al cargo con la diligencia de una persona representante leal.

Artículo 22.- Autocontratación de las personas integrantes del Patronato.

1. Las personas integrantes del Patronato o las personas que las representen no podrán contratar con la Fundación, ya sea en nombre propio o de una tercera persona, salvo autorización del Protectorado, con el procedimiento que reglamentariamente se establezca.

2. Dicha contratación deberá ser favorable al mejor logro de los fines fundacionales, no provocar conflicto de intereses y realizarse en términos de mercado, previo acuerdo motivado de la persona u órgano encargados de la contratación de la Fundación.

Artículo 23.- Responsabilidad de las personas que integran el Patronato.

1. Las personas integrantes del Patronato responderán solidariamente frente a la Fundación de los daños y perjuicios que causen por actos contrarios a la ley o a los estatutos, o por los realizados sin la diligencia con la que deben desempeñar el cargo.

2. Erantzukizunetik aske geratuko dira erabakiaren kontra bozkatu dutenak, erabakia hartzen eta betearazten parte hartu ez, eta erabakiaren berririk ez zutela frogatzen dutenak; bai eta, erabakiaren berri izan arren, kaltea ekiditeko komeni zen guztia egin zutela edo, gutxienez, esanbidez aurka agertu zirela frogatzen dutenak ere.

24. artikulua.- Patronatuaren barruko funtzionamendua.

1. Patronatuak urtean 2 bilera egingo ditu gutxienez. Urte bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan, nahitaez bilera bat egin beharko du urteko kontuak onartzeko eta hurrengo urteko jarduketa plana onartzeko.

2. Patronatuaren bileretarako deialdiak idatziz egingo dira. Deialdian, lehendakariak gobernu organoko kideen iradokizunak aintzat hartuta erabakitako gai zerrenda adieraziko da. Deialdia, bilera eguna baino gutxienez 15 egun lehenago egin beharko da, larrialdiko gaia ez bada behintzat, horrelakoetan epea 3 egunera laburtu ahal izango baita.

25. artikulua.- Patronatua eratzea eta erabakiak hartzea.

1. Patronatua lehen deialdian balioz eraturik geratuko da, baldin eta kide kopuruaren erdia eta bat gehiago, berez edo ordezkarien bitartez, bertaratu badira.

2. Aurreko pasartean adierazitako quoruma osatu ezean, Patronatua ordubete beranduago bilduko da, eta bigarren bilera honetan Patronatuko kideen edozein kopuru nahikoa izango da, baldin eta gutxienez hiru (3) kide bertan badaude eta betiere, Lehendakariak eta Lehendakariordetzako titullarrak aurrean badaude.

3. Aurreko pasarteetan adierazitakoa hala izanik ere, Patronatua biltzeko deia egintzat eta balioz eraturik joko da, baldin eta Patronatuko kide guztiak aurrean direla, aho batez bilera egitea onartzen badute.

4. Erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira. Alabaina, Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da eta, betiere, Foru Aldundiaren ordezkarien aldeko botoa, honako erabakiak hartu ahal izateko:

2. Quedarán exentos de responsabilidad quienes hayan votado en contra del acuerdo y quienes prueben que, no habiendo intervenido en su adopción y ejecución, desconocían su existencia o, conociéndola, hicieron todo lo conveniente para evitar el daño o, al menos, se opusieron expresamente a aquel.

Artículo 24.- Funcionamiento interno del Patronato.

1. El Patronato celebrará como mínimo 2 reuniones cada año. Dentro de los seis primeros meses de cada año se reunirá necesariamente para aprobar las cuentas anuales, así como la aprobación del Plan de actuación del ejercicio siguiente.

2. Las convocatorias del Patronato habrán de realizarse por escrito, conteniendo el Orden del día acordado por la persona que ostente la presidencia, debiendo tener en cuenta las sugerencias de los miembros del órgano de gobierno, con una antelación mínima de 15 días a la fecha de la reunión, salvo en los supuestos de urgencia, en los que el plazo podrá reducirse a 3 días.

Artículo 25.- Constitución y adopción de acuerdos.

1. El Patronato quedará válidamente constituido en primera convocatoria cuando concurren, personalmente o por representación, la mitad más uno de las personas que lo integren.

2. Si no se reuniera el quórum señalado en el párrafo anterior, el Patronato se reunirá una hora después, bastando en esta segunda reunión con la asistencia de cualquier número de personas que integran el Patronato, con un mínimo de tres, (3) siempre que estén presentes las personas que ostenten la titularidad de la presidencia y la vicepresidencia.

3. Con independencia de lo señalado en los párrafos anteriores, el Patronato se entenderá convocado y quedará válidamente constituido cuando estén presentes todas las personas integrantes del mismo y acepten unánimemente la celebración de la reunión.

4. Los acuerdos se tomarán por mayoría de votos. No obstante, será necesario el voto favorable de las dos terceras partes de los miembros del Patronato y en todo caso el voto a favor de la representación de la Diputación Foral, para la adopción de los acuerdos siguientes:

- a) Estatutuen aldaketak onartzeko.
- b) Fundazioaren bat-egitea, bereizketa, azkentzea eta eraldaketa onartzeko.
- c) Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak onartzeko eta aurrekontu horietako kontuak eta likidazioak onartzeko.
- d) Izaera ekonomikoa duten jarduerak edo eragiketak onartzeko.
- e) Fundazioko kidegoa eta organigrama onartzeko, lanpostu bakoitzari dagokion ordainsaria ezarri, eta Fundazioaren zerbitzura daudenak izendatzeko eta baztertzeko.

5. Gerta litezkeen berdinketak lehendakariaren botoak erabakiko ditu.

6. Idazkariak Patronatuaren bilera bakoitzeko akta egingo du. Agiri horretan, bileraren eguna eta lekua adierazteaz gain, honakoak zehaztu beharko dira: bertaratu diren kideak, eztabaidagaiak eta hartutako erabakien edukia.

7. Patronatua bideokonferentziaz edo bestelako komunikabideen bitartez elkartu ahal izango da, baldin eta bermatua geratzen bada bilerara bertaratu direnen identifikazioa, komunikazioaren jarraipena, eztabaidetan parte hartzeko aukera eta botoa ematea. Horrelakoetan, bilera hori lehendakaria dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

8. Patronatuak, aparteko kasuren batean, bilera egin gabe har ditzake erabakiak, baldin eta informazioa jasotzeko eta botoa emateko eskubideak bermatuak badaude, boto jaso izana frogatzen bada, eta botoaren benetakotasuna bermatzen bada. Ulertzen da erabakia pertsona juridikoaren egoitzan hartu dela, balioz emandako azkeneko botoa jaso den data berean.

III. TITULUA.- ONDAREA, ERREGIMEN EKONOMIKOA ETA KONTRATAZIO ERREGIMENA

26. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Fundazioaren ondarea hasierako zuzkiduran txertatzen diren eta ekonomikoki balora daitezkeen ondasun, eskubide eta betebeharrekin osatuko dute. Fundazioak, eratu ondoren eskuratzen dituenak ere

a) Aprobación de las modificaciones de los Estatutos.

b) Aprobación de la fusión, escisión, extinción y transformación de la Fundación.

c) Aprobación de los presupuestos para cada ejercicio así como las cuentas y liquidaciones de los mismos.

d) Aprobación de las actividades u operaciones de contenido económico.

e) Aprobación de la plantilla y organigrama de la Fundación fijando la retribución de cada puesto de trabajo, así como el nombramiento y separación del personal al servicio de la Fundación.

5. El voto de la persona que ostente la presidencia dirimirá los empates que puedan producirse.

6. De cada reunión del Patronato se levantará por el Secretario o Secretaria el Acta correspondiente que, además de precisar el lugar y día en que aquella se ha celebrado, se especificarán las personas asistentes, los temas objeto de deliberación y el contenido de los acuerdos adoptados.

7. El Patronato podrá reunirse por medio de videoconferencia o de otros medios de comunicación, siempre que quede garantizada la identificación de quienes asistan, la continuidad de la comunicación, la posibilidad de intervenir en las deliberaciones y la emisión del voto. En este caso, se entiende que la reunión se celebra en el lugar donde está la persona que la preside.

8. Con carácter excepcional, el Patronato podrá adoptar acuerdos sin la celebración de reunión, siempre que queden garantizados los derechos de información y de voto, que quede constancia de la recepción del voto y que se garantice su autenticidad. Se entiende que el acuerdo se adopta en el lugar del domicilio de la persona jurídica y en la fecha de recepción del último de los votos válidamente emitidos.

TÍTULO III.- PATRIMONIO, RÉGIMEN ECONÓMICO Y DE CONTRATACIÓN

Artículo 26.- El patrimonio de la Fundación.

El patrimonio de la Fundación estará formado por todos sus bienes, derechos y obligaciones susceptibles de valoración económica que integren la dotación inicial, así como por aquellos que

ondare horretan sartuko dira, zuzkidurari atxiki ala ez.

27. artikulua.- Ondare zuzkidura.

1. Fundazioa eratzeko eskritura publikoan hornidura izaeraz jasotakoa izango da Fundazioaren hasierako ondare zuzkidura, eta sortzaileek ezarritako ondasun eta eskubideek osatuko dute.

2. Gerora egiten diren ondare zuzkidurak Patronatuak onartu beharko ditu, aurrez sortzaileek beren adostasuna adierazita, eta zuzkidura horiek urteko kontuetan jaso behar dira.

3. Fundazioak beronen zuzkidura handitzeko erabil ditzake sarreretan gertatutako soberakinak.

28. artikulua.- Fundazioaren ondarea zaintzea.

1. Fundazioaren ondarea zaintzeko eta babesteko, honako arauak beteko dira:

a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egongo dira, honen inbentarioan jasoko dira eta, hala badagokio, bidezko erregistroetan inskribatuko dira.

b) Ondasun higiezinak edota eskubide errealak Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskribatu beharreko gainerako ondasunak kasuan kasuko erregistroetan inskribatuko dira.

c) Baloreak eta dirua, jabetza tituluak, gordailutze agiriak, hala nola ondasun baten jabaria, edukitza, erabilera edo gozatzeko eskubidea adierazten duten ziurtagiriak eta Fundazioaren titulartasunekoak diren gainerako eskubide guztiak, Patronatuak erabakitzen duen entitatean gordailutuko dira Fundazioaren izenean.

d) Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak erabakitzen duen eran zainduko dira.

2. Ondasun eta eskubide horiek guztiak Inbentarioen Liburuan zehaztuko dira, eta hori, Patronatuko idazkariaren ardurapean egongo da. Eta, hark ikuskatuta, liburu horretan zehaztuko dira ondasun edo eskubide bakoitza identifikatu eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak.

adquiera con posterioridad a su constitución, se afecten o no a la dotación.

Artículo 27.- Dotación patrimonial.

1. La dotación patrimonial inicial de la Fundación es la recogida, con este carácter, en la escritura pública de constitución, y está compuesta por los bienes y derechos aportados por las personas fundadoras.

2. Las dotaciones patrimoniales posteriores han de ser aprobadas por el Patronato previa conformidad manifestada por las fundadoras y deben constar en las cuentas anuales.

3. La Fundación podrá destinar los excedentes de ingresos a incrementar la dotación fundacional.

Artículo 28.- Custodia del patrimonio fundacional.

1. Para la custodia y salvaguarda del patrimonio fundacional se observarán las siguientes reglas:

a) Los bienes y derechos que integran el patrimonio fundacional, deberán estar a nombre de la Fundación y habrán de constar en su Inventario y ser inscritos, en su caso, en los Registros correspondientes.

b) Los bienes inmuebles y/ o derechos reales se inscribirán a nombre de la Fundación en el Registro de la Propiedad. El resto de los bienes susceptibles de inscripción se inscribirán en los registros correspondientes.

c) Los valores y metálico, los títulos de propiedad, los resguardos de depósito y cualesquiera otros documentos acreditativos de dominio, posesión, uso, disfrute o cualquier otro derecho de que sea titular la Fundación, se depositarán en la entidad que determine el Patronato a nombre de la Fundación.

d) Los demás bienes muebles serán custodiados en la forma que determine el Patronato.

2. Todos estos bienes o derechos se especificarán en el Libro de Inventarios, que estará a cargo del Secretario o Secretaria del Patronato, y en el que, bajo su inspección se consignarán todas las circunstancias precisas para su identificación y descripción.

29. artikulua.- Ekonomia eta kontabilitate betebeharrak.

1. Urteko kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, Fundazioaren Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidaliko ditu urteko kontuak –behar bezala sinatuta– gordailutzeko. Eta kontu horiek bete egin beharko dituzte irabazi asmorik gabeko fundazioei buruzko araudian xedatutako baldintzak.

2. Fundazioaren urteko kontuetan honakoak sartuko dira gutxienez: balantzea, emaitza kontua, memoria eta aurreko jarduketa planaren likidazioa. Fundazioaren garrantzi ekonomikoa kontuan hartuta, urtero kanpo kontu-ikuskaritza bat egin beharko du. Ikuskatzaileek emandako txostena Fundazioen Erregistroan sartu beharko da, urteko kontuekin batera.

3. Kontu horietan garbi azalduko da Fundazioaren ondare egoera, ekonomikoa eta finantzarioa, urtean zehar egindako jarduerak eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa, Fundazioaren helburuak eta legezko aginduak jakinarazteko eta betetzen direla justifikatzeko moduan.

4. Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da, urte naturalekoa.

5. Fundazioak Jarduketa Plan bat egingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, sarrerak eta gastuak modu orekatuan jasoz. Plan hori Babesletzari aurkeztuko zaio, azalpen memoriarekin batera, onartzen den urteko azkeneko hiruhilekoan.

30. artikulua.- Aplikatu beharreko araudia.

1. Fundazioari aplikatu beharreko aurrekontu, kontabilitate eta kontrol araubidea Gipuzkoako lurralde historikoko finantza eta aurrekontu araubideari buruzko 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, izango da, foru mailako merkataritza sozietateei buruzkoa.

2. Fundazioak bete egin beharko ditu Kontabilitate Plan Orokorra irabazi asmorik gabeko erakundeei egokitzeko 1491/2011 Errege Dekretuak, urriaren 24koak, xedatutako aginduak, eta irabazi asmorik gabeko erakundeen jarduketa plana egiteko eredia.

Artículo 29.- Obligaciones económico-contables.

1. Dentro de los 30 días naturales siguientes a la aprobación de las cuentas anuales, el Patronato de la Fundación deberá remitir al Registro de Fundaciones del País Vasco para su depósito las cuentas anuales debidamente firmadas, las cuales han de cumplir los requisitos previstos en la normativa sobre contabilidad para las entidades sin ánimo de lucro.

2. Las cuentas anuales de la Fundación deberán estar formadas como mínimo por el balance, la cuenta de resultados, la memoria y la liquidación del plan de actuación anterior. Dada la relevancia económica de la Fundación, deberá someterse anualmente a una auditoría externa de cuentas. El informe que emitan los auditores deberá depositarse en el Registro de Fundaciones, junto con las cuentas anuales.

3. En dichas cuentas deberá reflejarse la situación patrimonial, económica y financiera de la Fundación, las actividades realizadas durante el año, y la gestión económica del patrimonio, suficiente para hacer conocer y justificar el cumplimiento de las finalidades fundacionales y de los preceptos legales.

4. El ejercicio económico será anual y coincidirá con el año natural.

5. La Fundación confeccionará para cada ejercicio económico un Plan de actuación en el que se recogerán los ingresos y gastos de forma equilibrada. Dicho Plan se presentará ante el Protectorado en el último trimestre del año de su aprobación, junto con una Memoria explicativa.

Artículo 30.- Normativa aplicable.

1. El régimen de presupuestación, contabilidad y control aplicable a la Fundación será el establecido en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para las sociedades mercantiles forales.

2. Asimismo la Fundación estará sujeta a las prescripciones establecidas en el Real Decreto 1491/2011, de 24 de octubre, por el que se aprueban las normas de adaptación del Plan General de Contabilidad a las entidades sin fines lucrativos y el modelo del plan de actuación de las entidades sin fines lucrativos.

31. artikulua.- Fundazioaren baliabideak aplikatzea.

1. Fundazioak gutxienez emaitza kontuaren diru-sarreraren % 70 baliatu beharko du bere helburuak gauzatzeko. Diru-sarrera horiek kontzeptu guztiak direla-eta lortuak izango dira, diru-sarrerak lortzeko Fundazioak izan dituen gastuak kenduta, Fundazioaren helburuak betetzeari buruzkoak izan ezik. Eginkizun hori betetzeko epea kasuan kasuko emaitzak eta sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieratik hasi eta ekitaldi horren bukaeraren ondorengo hiru urte bete artekoa izango da.

2. Administrazio gastutzat hartuko dira Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzeak zuzenean eragindako gastuak, eta Patronatuko kideei beren eginkizunaren jardunean eragindako gastuak, itzultzeko eskubidea baldin badute behintzat.

32. artikulua.- Jarduera ekonomikoak, enpresa arlokoak edo merkataritzakoak egitea.

1. Fundazioak jarduera ekonomikoak, enpresa arlokoak edo merkataritzakoak egin ahal izango ditu, zuzenean edo beste erakunde batzuen bitartez, baldin eta jarduera horiek Fundazioaren helburuekin lotuak badaude edo jarduera horien osagarri edo lagungarri badira, eta betiere lehiaren defentsarako arauei men eginez.

2. Fundazioak, gainera, beste edozein jarduera ekonomikotan parte hartu ahal izango du, beste erakunde batzuetan partaide izanda, sozietate-zorren gainean erantzukizun pertsonalik ez dagoen kasuetan.

33. artikulua.- Xedatze egintzak edo kargak ezartzeko egintzak.

1. Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari jakinari beharko dizkio Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun edo eskubideen kostu bidezko edo doako xedatze egintzak, baita kargak ezartzeko egintzak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean hala adieraziak dauden kasuan.

2. Patronatuak erantzukizuneko adierazpena aurkeztuko dio Babesletzari. Adierazpen horretan zehaztuko da xedatzeko edo kargatzeko erabakia behar bezala hartu dela eta horretarako arrazoiak eta beharrak zein diren orobat eragiketarako fundazioari ez diola kalterik eragiten, eta haren

Artículo 31.- Aplicación de los recursos de la Fundación.

1. La Fundación deberá destinar a la realización de los fines fundacionales, al menos, el 70% de los ingresos de la cuenta de resultados, obtenidos por todos los conceptos, deducidos los gastos en los que hayan incurrido para la obtención de los ingresos, excepto los referentes al cumplimiento de los fines fundacionales. El plazo para el cumplimiento de esta obligación será el comprendido entre el inicio del ejercicio en el que se hayan obtenido los respectivos resultados e ingresos y los tres años siguientes al cierre de dicho ejercicio.

2. Los gastos de administración serán aquellos directamente ocasionados por la administración de los bienes y derechos que integran el patrimonio de la Fundación, y aquellos otros originados a las personas integrantes del Patronato con ocasión del desempeño de su cargo sobre los que exista un derecho de reembolso.

Artículo 32.- Desarrollo de actividades económicas, empresariales o mercantiles.

1. La Fundación podrá desarrollar, bien directamente o a través de otras entidades, actividades económicas, empresariales o mercantiles relacionadas con los fines fundacionales o que sean complementarias o accesorias de las mismas, con sometimiento a las normas reguladoras de la defensa de la competencia.

2. Además, podrán intervenir en cualquier otra actividad económica a través de su participación en otras entidades en los supuestos en los que no se responda personalmente de las deudas sociales.

Artículo 33.- Actos de disposición o gravamen.

1. La Fundación deberá notificar al Protectorado de Fundaciones del País Vasco los actos de disposición onerosa o gratuita, así como de gravamen, de bienes o derechos que formen parte del patrimonio de la Fundación, señalados en la Ley de Fundaciones del País Vasco.

2. El Patronato deberá presentar al Protectorado la declaración responsable que determine que se ha adoptado correctamente el acuerdo de disposición o gravamen, indicando la motivación y necesidad de su realización, así como que la operación no es perjudicial para la Fundación ni pone en peligro su

bideragarritasun ekonomikoa ere ez duela arriskuan jartzen.

3. Xedatzeko edo kargatzeko egintzen xede diren ondasun edo eskubideek merkatuan duten balioa Fundazioaren aktiboaren % 60 baino gehiago bada, profesional independente batek egindako azterlan ekonomikoa erantsi beharko dio Patronatuak erantzukizunpeko adierazpenari. Agiri horretan ziurtatuko du adierazpenean azaldutakoa egia dela, fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa bermatu, eta halaber irizpide ekonomiko eta finantzarioekin eta merkatukoekin bat datorrela eragiketa.

4. Xedatzeko edo kargatzeko egintza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira, eta dagokien erregistroan ere bai, bidezko denean. Xedatzeko eta kargatzeko gainerako egintzak, urtero Babesletzari aurkeztu beharreko memorian jasoko dira.

34. artikulua.- Kontratazio araubidea.

Fundazioak egiten dituen kontratuak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen arabera eta arlo honetan indarrean dauden bestelako araudiei jarraituz egingo dira.

IV. TITULUA.- ESTATUTUAK ALDATZEA, BAT-EGITEA, BEREIZKETA, AZKENTZEA ETA ERALDATZEA

35. artikulua.- Estatutuak aldatzea.

1. Fundazioaren Patronatuak estatutu hauek aldatzea erabaki dezakete, baldin eta aldaketa hori komenigarri bada Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko, eta sortzaileen berariazko debekurik ez badago.

2. Aldaketa hori arrazoiz erabaki beharko da, gutxienez kide guztien bi herenen aldeko botoarekin eta, edozein kasutan ere, Foru Aldundiaren ordezkarien aldeko botoarekin. Ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Fundazioa den heinean, Foru Aldundiaren onespena beharko da, Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez.

3. Eskritura publikoa formalizatuta, estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da sei (6) hilabeteko epean, Patronatuak akordioa onartzen duenetik zenbatzen hasita.

viabilidad económica.

3. Si el valor de mercado de los bienes o derechos objeto de los actos de disposición o gravamen supera el 60% del activo de la Fundación, el Patronato deberá presentar junto con la declaración responsable un estudio económico realizado por profesional independiente que acredite lo expuesto en ella y garantice la viabilidad económica de la Fundación, así como que la operación responde a criterios económico-financieros y de mercado.

4. Los actos de disposición o gravamen señalados se anotarán en el Registro de Fundaciones del País Vasco, sin perjuicio de la inscripción, cuando proceda, en el registro correspondiente. El resto de los actos de disposición o gravamen deberán constar en la memoria que ha de presentarse anualmente al Protectorado.

Artículo 34.- Régimen de contratación.

Los contratos que celebre la Fundación se registrarán por la Ley de Contratos del Sector Público y demás normativa vigente en la materia.

TÍTULO IV.- MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS, FUSIÓN, ESCISIÓN, EXTINCIÓN Y TRANSFORMACIÓN

Artículo 35.- Modificación de estatutos.

1. El Patronato de la Fundación podrá acordar la modificación de los presentes estatutos siempre que resulte conveniente para el mejor cumplimiento de los fines fundacionales, y no exista prohibición expresa de las personas fundadoras.

2. El acuerdo de modificación de estatutos deberá adoptarse motivadamente, con el voto favorable de los 2/3 de las personas integrantes como mínimo, y en todo caso con el voto a favor de la representación de la Diputación Foral, posteriormente, y en cuanto fundación del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, deberá someterse a la aprobación de la Diputación Foral, mediante acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral.

3. Una vez formalizada la escritura pública, la modificación de estatutos se inscribirá en el Registro de Fundaciones del País Vasco en el plazo de seis (6) meses desde la adopción del acuerdo por parte del Patronato.

Dena den, estatutuen aldaketa oinarrituz gero, fundazio-helburuak aldatu edo ezabatzen badira, Babesletzaren berariazko onespena beharko da, inskribatu aurretik.

36. artikulua.- Bat-egitea.

1. Patronatuak, era berean, beste erakunde batekin edo gehiagorekin bat egitea erabaki dezake, baldin eta Fundazioaren helburua behar bezala beteko dela bermatzen bada.

2. Bat egiteko erabakia arrazoiz hartu beharko da, gutxienez kide guztien bi herenen aldeko botoarekin eta, edozein kasutan ere, Foru Aldundiaren ordezkarien aldeko botoarekin. Geroago, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Fundazioa den heinean, Foru Aldundiaren onespena beharko da, Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez. Ondoren, protektoratuari jakinaraziko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 38. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Eskritura publikoan formalizatuta, bat-egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

37. artikulua.- Bereizketa.

1. Fundazioaren zati bat bereizi ahal izango da edo fundazioa zatitu, beste fundazio bat edo batzuk sortzeko, edo aurretik sortuta dagoen beste fundazio bati edo batzuei eskualdatzeko, ondarea bananduta, baldin eta fundatzaileen horren kontrako borondaterik jasota ez badago, bereizitako fundazioaren helburuak hobeto beteko direla justifikatzen bada eta fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jartzen ez bada. Fundazioa bereizteko edo zatitzeko erabakia arrazoituta hartuko da, gutxienez kide guztien bi herenen aldeko botoarekin eta, edozein kasutan ere, Foru Aldundiaren ordezkarien aldeko botoarekin. Geroago, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Fundazioa den heinean, Foru Aldundiaren onespena beharko da, Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez. Ondoren, protektoratuari jakinaraziko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 39. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

2. Zatitutakoa lehendik badauden beste fundazio batera edo gehiagotara eskualdatzeko, kasuan

No obstante, si la modificación estatutaria consiste en la modificación o supresión de los fines fundaciones, será necesaria la aprobación expresa del Protectorado, con carácter previo a su inscripción.

Artículo 36.- Fusión.

1. El Patronato podrá acordar la fusión con otra u otras entidades siempre que quede atendido en la debida forma el objeto fundacional.

2. El acuerdo de fusión deberá adoptarse motivadamente, con el voto favorable de los 2/3 de las personas integrantes como mínimo, y en todo caso con el voto a favor de la representación de la Diputación Foral, posteriormente, y en cuanto fundación del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, deberá someterse a la aprobación de la Diputación Foral, mediante acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral, tras lo cual se comunicará al Protectorado a los efectos establecidos en el artículo 38 de la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

3. Una vez formalizada en escritura pública, la fusión se inscribirá en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

Artículo 37.- Escisión.

1. La escisión de parte de una Fundación o la división de esta, para la creación de otra u otras fundaciones, o para la transmisión a otra u otras previamente creadas mediante la segregación de su patrimonio, se podrá realizar cuando no conste la voluntad contraria de las personas fundadoras, se justifique el mejor cumplimiento de los fines fundacionales de la escindida y no se ponga en peligro la viabilidad económica de la misma. El acuerdo será adoptado motivadamente con el voto favorable de los 2/3 de las personas integrantes, como mínimo, y en todo caso con el voto a favor de la representación de la Diputación Foral, posteriormente, y en cuanto fundación del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, deberá someterse a la aprobación de la Diputación Foral, mediante acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral, tras lo cual se comunicará al Protectorado a los efectos establecidos en el artículo 39 de la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

2. La escisión con transmisión de lo escindido a otra u otras fundaciones ya existentes requiere el

kasuko patronatuen erabaki arrazoitua izan beharko da, bidezko eskritura publikoa egingo da, Patronatuak bere onespina eman beharko du eta, azkenean, bereizketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

38. artikulua.- Azkentzea.

Fundazioa azkendu egingo da:

- a) Eratu zenean finkatutako epea amaitzen denean.
- b) Eratu zenean finkatutako helburua erabat betetzen denean.
- c) Fundazioaren helburua betetzea ezinezkoa denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean estatutuen aldaketari, bat-egiteari eta bereizketari buruz xedatutakoa gorabehera.
- d) Bat-egite edo bereizketa prozesu batek ondorio hori dakarrenean.
- e) Patronatuko kideen bi herenek hala erabakitzen dutenean Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkarien aldeko botoarekin.
- f) Legeek aurreikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.

39. artikulua.- Azkentzeko prozedura.

1. Aurreko artikuluko a) apartatuan adierazitakoa gertatuz gero, Fundazioa zuzenbide osoz azkenduko da.
2. Aurreko artikuluko b), c) eta e) apartatuetan aurreikusitako kasuetan, Fundazioaren azkentzea Patronatuak erabakiko du eta Babesletzak berretsi. Patronatuaren erabakirik ez badago, edo haren erabakia Babesletzak berresten ez badu, ebazpen judizial arrazoitua beharko da Fundazioa azkentzeko, Babesletzak berak edo Patronatuak eskatuta, kasuak kasu.
3. Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Fundazioa den heinean, Foru Aldundiaren onespina beharko da, Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez.
4. Fundazioa azkentzeko erabakia edo ebazpen judizial arrazoitua, halakorik izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

acuerdo motivado de los Patronatos respectivos, el otorgamiento de la escritura pública, la aprobación del Protectorado y la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

Artículo 38.- Extinción.

La Fundación se extinguirá:

- a) Cuando haya expirado el plazo por el que fue constituida.
- b) Cuando se haya realizado en su totalidad el fin para el cual se constituyó.
- c) Cuando resulte imposible la realización del fin fundacional, sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley de Fundaciones del País Vasco respecto a la modificación de los estatutos, fusión y escisión.
- d) Cuando así resulte de un proceso de fusión o escisión.
- e) Cuando así lo decidan dos terceras partes del Patronato con el voto a favor de la representación de la Diputación Foral.
- f) Cuando se dé cualquier otra causa prevista en las leyes.

Artículo 39.- Procedimiento de extinción.

1. En el supuesto del apartado a) del artículo anterior, la Fundación se extinguirá de pleno derecho.
2. En los supuestos de los apartados b), c) y e) del artículo anterior, la extinción de la Fundación requerirá acuerdo del Patronato ratificado por el Protectorado. Si no hubiese acuerdo del Patronato, o este no fuese ratificado por el Protectorado, la extinción de la Fundación requerirá resolución judicial motivada, que podrá ser instada por el Protectorado o por el Patronato, según los casos.
3. En cuanto fundación del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, deberá someterse a la aprobación de la Diputación Foral, mediante acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral.
4. El acuerdo de extinción o, en su caso, la resolución judicial motivada, se inscribirán en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

40. artikulua.- Likidazioa eta soberako ondarearen xedea.

1. Fundazioaren iraungipenak, jatorria fusio-prozedura bat denean edo iraungipen-arrazoiak betetzean izan ezik, likidazio-prozesua irekitzea ekarriko du. Prozesu hau Patronatuak edo protektoratuaren kontrolpean izendatutako likidazio-batzorde batek egingo du, baldin eta, hala badagokio, ebazpen judizial arrazoitu bat ezartzen badu. Fundazioak bere nortasun juridikoa gordeko du prozesu hori amaitu arte, eta, aldi horretan, Fundazioak "likidazioan" identifikatu behar du.

2. Likidazioa egin eta gero geratu diren ondasun eta eskubideak pertsona juridiko publiko sortzaileetara bideratuko dira, Fundazioa sortzeko unean edo gerora bakoitzak egin duen ekarpenaren proportzio berean.

41. artikulua.- Fundazioa eraldatu eta bestelako erakunde bihurtzea.

1. Fundazioa eraldatu eta beste mota bateko pertsona juridiko bihurtu ahal izango da, betiere irabazi asmorik izan gabe jatorrizko fundazioaren helburuak betetzen baditu, jarduteko eremua Euskal Autonomia Erkidegoan badu eta fundazioaren ondarea organo publiko baten tutoretzapean mantentzen badu bere osotasunean.

2. Eraldatzeko erabakia Fundazioaren Patronatuak onetsi behar du; zer pertsona juridiko mota bihurtu nahi duen ere erabakiko du, baita estatutuetan egin beharreko aldaketak ere.

3. Kasu horretan eraldaketaren ondorioz Fundazioa ez da azkenduko, ez eta likidazio prozedura irekiko ere, eta bere nortasun juridikoa mantenduko du. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan baja emango zaio dagokion erregistroan inskribatzeko.

4. Fundazioa eraldatzeko erabakia arrazoituta hartu beharko da, gutxienez Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoarekin eta, edozein kasutan ere, Foru Aldundiaren ordezkarien aldeko botoarekin. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da. Ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Fundazioa den heinean, Foru Aldundiaren onespena beharko da, Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez.

Artículo 40.- Liquidación y destino del patrimonio sobrante.

1. La extinción de la Fundación excepto en los supuestos en que su origen sea un procedimiento de fusión, o el cumplimiento de las causas extintivas, determinará la apertura del proceso de liquidación, el cual se llevará a cabo por el Patronato o por una comisión liquidadora nombrada por dicho órgano de gobierno bajo el control del Protectorado, salvo lo que , en su caso, establezca una resolución judicial motivada. La Fundación conservará su personalidad jurídica hasta la conclusión de dicho proceso, y durante este periodo la Fundación debe identificarse como "en liquidación".

2. Los bienes y derechos resultantes de la liquidación se destinarán a las personas jurídicas públicas fundadoras, en proporción a su aportación realizada en el momento de la constitución o con posterioridad.

Artículo 41.- Transformación de la Fundación en otra entidad.

1. La Fundación podrá transformarse en otro tipo de persona jurídica que, careciendo de ánimo de lucro, cumpla los fines fundacionales originarios, tenga su ámbito de actuación dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco y mantenga la integridad del patrimonio fundacional bajo la tutela de un órgano público.

2. El acuerdo de transformación deberá ser aprobado por el Patronato de la Fundación, acordando el nuevo tipo de persona jurídica en la que se transforma e incluyendo las modificaciones estatutarias que resulten pertinentes.

3. En dicho supuesto, la transformación no implicará la extinción de la Fundación ni la apertura del procedimiento de liquidación, conservando la personalidad jurídica. Su baja se inscribirá en el Registro de Fundaciones del País Vasco por traslado al registro correspondiente.

4. El acuerdo de transformación deberá adoptarse motivadamente, con el voto favorable de los 2/3 de las personas integrantes del Patronato como mínimo, y en todo caso con el voto a favor de la representación de la Diputación Foral, posteriormente, y en cuanto fundación del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, deberá someterse a la aprobación de la Diputación Foral, mediante acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral.

5. Eraldaketa-akordioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da.

V. TITULUA.- BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

42. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa.

Fundazioaren eraketa, eta eraketa legez behar dituen egintza edo negozio juridiko guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

43. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza.

Fundazio honek Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren tutoretza, aholkularitza eta kontrola izango ditu, indarrean dauden legeek aurreikusitako baldintzetan.

44. artikulua.- Zigor erregimena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean aurreikusitako zigor araubideari lotua dago Fundazioa.

VI. TITULUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

45. artikulua.- Laguntzaileak.

1.- Eratzeko eskritura egin eta gero, Fundazioari ekarpen ekonomikoak, lan arlokoak edo beste izaerakoak egiten dizkieten pertsona fisikoak eta juridikoak, laguntzaile moduan atxiki ahal izango zaizkio, betiere Fundazioaren jarduera egiten edo programa jakin batzuetan lagunduko badute. Halakotzat hartuko dira Patronatuak izaera hori ematen dien pertsona fisiko eta juridikoak, aldez aurretik finkatutako irizpide eta baldintzekin bat etorritik.

2.- Fundazioari laguntzaile gisa atxikitzen zaizkion pertsona fisiko eta juridikoek, Fundazioak egiten dituen jardueri buruzko informazioa jasotzeko eskubidea izango dute, urtero azalpen-bilera batean gutxienez. Era berean, beren irudi korporatiboa Fundazioak argitaratzen dituen argitalpen guztietan ikusiko dute, argitalpenaren berri zehatza jasoz; Fundazioarekin duten lotura

5. El acuerdo de transformación deberá inscribirse en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

TÍTULO V.- PROTECTORADO Y REGISTRO DE FUNDACIONES

Artículo 42.- Registro de Fundaciones del País Vasco.

La constitución de esta Fundación, así como de todos los actos o negocios jurídicos de la misma que legalmente lo precisen, se inscribirán en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

Artículo 43.- El Protectorado de Fundaciones del País Vasco.

Esta Fundación queda sujeta a la tutela, asesoramiento y control del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, en los términos previstos en las leyes vigentes.

Artículo 44.- Régimen sancionador.

La Fundación está sujeta al régimen sancionador previsto en la Ley de Fundaciones del País Vasco.

TÍTULO VI. RÉGIMEN JURÍDICO DE LAS PERSONAS COLABORADORAS DE LA FUNDACIÓN

Artículo 45. Personas Colaboradoras.

1.- Con posterioridad al otorgamiento de la Escritura Fundacional, podrán adherirse como colaboradoras aquellas personas físicas y jurídicas, que realicen aportaciones económicas, de trabajo o de otra naturaleza a la Fundación, que contribuyan al desarrollo de su actividad fundacional o programas concretos. Tendrán esta consideración, las personas físicas o jurídicas a las que el Patronato otorgue tal condición de conformidad con los criterios y condiciones que con carácter previo haya fijado.

2.- Las personas físicas o jurídicas que se adhieran a la Fundación como colaboradoras, tendrán derecho como mínimo a ser informadas de cuantas actividades desarrolle la Fundación al menos en una reunión anual informativa. Del mismo modo verán reflejada su imagen corporativa en cuantas publicaciones edite la Fundación, de las que tendrán conocimiento puntualmente; tendrán

aditzera emateko eskubidea izango dute; Fundazioaren aretoak, entitatea eratzearen xedeekin bat datozen dibulgaziozko jarduerak burutzeko erabili ahal izango dituzte, libre badaude behintzat; Fundazioak antolatzen dituen ekitaldi guztietarako gonbidapena jasoko dute; eta, edozein kasutan ere, laguntzaile moduan dagokien lehenetsuneko tratamendua jasoko dute. Horrek guztiak ez du baldintzatuko, ordea, Fundazioarekin adostutako lankidetzaren hitzarmenetan xehetasun osoz adierazitakoa; izan ere, kasuan kasuko eskubide eta betebeharrak hitzarmen horietan arautuko baitira.

46. artikulua.- Atxikimendua.

Laguntzaileen atxikimendu eskaerak Patronatuko kideen gehiengo absolutuaz onartuko dira, estatutu hauen 8. artikuluan ezarritako bozketa sistemaren arabera. Eta, hain zuzen ere, izangaiek ordaindu beharreko diru-kopuruak Patronatuak zehaztuko ditu, halakoak bidezko direnean.

47. artikulua.- Ohorezko laguntzaileak.

Fundazioaren helburuak lortzeko bidean era nabarmenean lagundu izan duten edo laguntzen duten pertsona fisiko eta juridikoak, ohorezko laguntzaile izendatu ahal izango ditu Patronatuak.

derecho a publicitar su vinculación con la Fundación; podrán disponer -siempre sujeto a disponibilidad- de las estancias con que cuenta la Fundación para celebrar aquellas actividades divulgativas que se ajusten a los fines fundacionales de la Fundación; serán puntualmente invitadas a cuantos eventos organice la Fundación y serán tratadas, en cualquier caso, con la deferencia debida dado su cargo de colaboradora. Todo ello sin perjuicio de lo que se establezca de modo detallado en los respectivos convenios de colaboración con la Fundación, y que regularán pormenorizadamente el régimen de derechos y obligaciones.

Artículo 46. Adhesión.

Las solicitudes de adhesión de las colaboradoras deberán ser aprobadas por la mayoría absoluta de las personas que integran el Patronato, conforme al sistema de votación establecido en el artículo 8 de los presentes Estatutos, quien fijará asimismo las contribuciones económicas que, en su caso, las personas aspirantes hayan de satisfacer.

Artículo 47.- Colaboradoras honoríficas.

El Patronato podrá nombrar colaboradoras honoríficas a las personas físicas o jurídicas que hayan contribuido o contribuyan de manera destacada a la consecución del objeto fundacional.

